



EMAKUMEAREN ELISKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

PROPOSAMENA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETAREN IRISMENAREN KATEGORIAK, DEFINIZIOAK ETA ADIERAZLEAK

**(Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak artatzen dituzten erakundeek datuak biltzeko
dituzten sistemak egokitzeko oinarria, galdera-sorta kasuan-kasu betetzeko)**

ADIERAZLEAK

- 01- Biktimaren sexua (indarkeriaren biktima diren emakumeentzat soilik ez diren sistemetarako bakarrik)
- 02- Erasotzailearen sexua (indarkeriaren biktima diren emakumeentzat soilik ez diren sistemetarako bakarrik)
- 03- Erasotzailearekiko harremana
- 04- Biktimaren adina
- 05- Seme-alabak eta ardurapeko adingabeak
- 06- Mendeko helduak
- 07- Bizileku-udalerrria eta erroldatzea
- 08- Nazionalitatea eta jaiotze-herrialdea

01- BIKTIMAREN SEXUA¹

Definizioa:

Sexua: Sexua pertsonaren sexu biologikoari dagokio. OMEren arabera, gizonak eta emakumeak definitzen dituzten ezaugarri biologikoei eta fisiologikoei dagokie "sexua". "Generoa", berriz, gizartean eraikitako rol, jokabide, jarduera eta nolakotasunei; rol, jokabide, jarduera eta nolakotasun horiek izango dira, hain zuzen ere, kultura jakin batek emakumeentzat eta gizonentzat egokitzen jotzen dituenak. Azalpen horrekin bat etorriz, OMEren ustez "gizona" eta "emakumea" sexu-kategoriak dira; "maskulinoa" eta "femeninoa", berriz, genero-kategoriak.

Biktima: Sexuan oinarritutako edozein ekintza bortitz pairatzen duen **emakumea**, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea eta askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan².

Kategoriak:

01- Biktimaren sexua:

- Emakumea
- Gizona

02- ERASOTZAILEAREN SEXUA

Definizioa:

Erasotzailea: Sexuan oinarritutako edozein ekintza bortitz egiten duena, baldin eta ekintza horrek emakume bati kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke, bai eta ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea eta askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan.

Kategoriak:

02- Erasotzailearen sexua:

- Emakumea
- Gizona

¹ Emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten biktimei buruzko informazioaren erregistroa arazo honetarako soilik ez diren datu-baseetan sar daiteke. Informazioa arazteko —arreta eskusiboa ematen ez duten baliabideetan, bereziki—, biktimaren sexua (01), erasotzailearen sexua (02) eta harreman-mota (03) adierazleak sartzea proposatu da, informazioa doituko baita adierazle horiek gurutzatuta.

² 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.

03- ERASOTZAILEAREKIKO HARREMANA

Definizioa:

Emakumeak bere aurka indarkeria darabilen pertsonarekin duen harreman-motari buruz adierazten duena erregistratzen da.

Kategoriak:

03- Erasotzailearekiko harremana:

- Ezkontidea/ Izatezko bikotekidea/ Bikotekidea/ Ezkongai-harremana
- Ezkontide ohia/ Izatezko bikotekide ohia/ Bikotekide ohia / Ezkongai ohia
- Aurreko ahaidea (Aita- Ama/ Aitaita- Amama)
- Ondorengo ahaidea (Semea- Alaba/ Biloba)
- Ezezaguna
- Beste batzuk: Zehaztu _____

04- BIKTIMAREN ADINA

Definizioa:

Jaioteguna. Pertsonaren noiz jaio zen jasotzen da.

Kategoriak:

(04) Biktimaren jaioteguna _____

05- SEME-ALABAK ETA ARDURAPEKO ADINGABEAK

Aldagai honetan, artatutako emakumearen seme-alabak izan ez ezik emakumearen kargura dauden adingabeak ere jasotzea proposatzen da.

Definizioa:

Seme-alaba: Adingabeak eta adin nagusikoak

Ardurapeko adingabea: 18 urtetik beherakoak, seme-alaba ez direnak, emakumearen guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza edo harreraren menpe daudenak

Kategoriak:

05.01- Seme-alabak

- Bai
- Ez

Seme-alaba bakoitzeko, datu hauek jaso:

05.01.01- Sexua

- Emakumea
- Gizona

05.01.02- Jaiotze-urtea _____

05.01.03- Bizikidetz

- Bai
- Ez

05.02- Ardurapeko adingabeak (seme-alaba ez direnak):

- Bai
- Ez

Ardurapeko adingabe bakoitzeko, datu hauek jaso:

05.02.01- Sexua

- Emakumea
- Gizona

05.02.02- Jaiotze-urtea _____

05.02.03- Bizikidetzaz

- Bai
- Ez

05.02.04- Harreman-mota:

- Neba-arreba,
- Biloba
- Iloba
- Beste batzuk: Zehaztu _____

06- MENDEKOTASUNA DUTEN HELDUAK

Definizioa: Bizikidetzaz-unitatekoak diren mendeko helduak; mendekotasun ekonomikoa, fisikoa, soziala edo mentala/kognitiboa duena jotzen da mendekotzat.

Mendekotasun ekonomikoa: Pertsona bat ekonomiaren eta lanaren arloan "aktibo" izatetik "inaktibo", "pasiboa" edo "mendekoa" izatera pasatzen denean gertatzen da. Jarduerari dagokionez, erreferentzia-datan egoera hauetakoren batean dauden pertsonen taldea: langabezia, lehen enpleguaren bila edo etxeko lanak egiten, ordainsaririk gabe.

Mendekotasun fisikoa: Gorputzaren funtzioen kontrola eta inguruko elementu fisikoen interakzioa galtzen da.

Mendekotasun soziala: pertsona eta harreman esanguratsuak galtzeari lotuta dago.

Mendekotasun mentala edo kognitiboa: Pertsonak galdu egiten du arazoak konpontzeko eta erabakiak bere kabuz hartzeko gaitasuna.

Kategoriak:

06- Mendekoak diren helduak:

- Bai
- Ez

Mendekotzat identifikatutako pertsona bakoitzeko, datu hauek beharko dira:

06.01- Sexua:

- Emakumea
- Gizona

06.02- Jaiotze-urtea _____

06.03- Erreferentziako pertsonarekin duen ahaidetasuna edo harremana: Aldagai honekin, artatutako emakumearekiko odolkidetasun-harremanak jasotzen dira.

- Aurreko ahaidea (Aita- Ama/ Aitaita- Amama)
- Ondorengo ahaidea (biloba)
- Beste senideren bat _____
- Beste batzuk: Zehaztu _____

07- BIZILEKU-UDALERRIA ETA ERROLDATZEA

Definizioa:

Bizilekua: Emakumeak normalean eguneroko atseden-aldia pasatzen duen lekua, kontuan hartu gabe aldi baterako irteerak (aisia, oporrak, lagunak edo ahaideak bisitazioa, negozioak, tratamendu medikoa edo erlijio-erromesaldia).

Erroldatzea: Biztanleen Udal Errolda udalerrri baten bizilagunen administrazio-erregistroa da; erregistroan dauden datuen bidez, bizilagunak udalerrri horretan bizi direla eta ohiko bitokia hor dutela frogatzen da.

Kategoriak:

07.01- Bizileku-udalerrria: _____ Eustaten taulen arabera

07.02- Erroldatzea:

- Bai
 - EAeko udalerrri batean.
 - Erroldatze-udalerrria: _____ Eustaten taulen arabera
 - Erroldatze-data _____
 - EAetik kanpoko udalerrri batean.
- Ez

08- NAZIONALITATEA ETA JAIOTERRIA

Definizioa:

Nazionalitatea lotura juridiko bat da, pertsona bakoitzak bere estatuarekin duena: jaiotzaz, naturalizazioz, deklarazioz, aukeraz, ezkontzaz edo nazioko araudiaren arabera beste formula batzuen bidez lortzen da.

Kategoriak:

08.01- Nazionalitatea:

- Ez atzerritarra. Nazionalitate espainiarra duen pertsona
- Nazionalitate bikoitza. Pertsona batek bi nazionalitate izatea, horietako bat espainiarra.
- Atzerritarra. Nazionalitate espainiarrik ez duen pertsona. _____ Herrialdea aipatu, Eustaten zerrendaren arabera
- Aberrigabea. Legediaren arabera, estatu batekin ere lotura juridikorik ez duen pertsona. Askotariko inguruabarrak tarteko, nazionalitatea kendu dioten pertsona.

08.02- Jaiotze-herrialdea: _____ Herrialdea aipatu, Eustaten zerrendaren arabera.

Informazio hau handitu ahal izanez gero:

Aldagai hauek fitxaren informazio zabalagoari dagozkio.

- AC.I.II.01- Erasotzailearekin bizitzea
- AC.I.II.02- Salaketa egotea
- AC.I.II.03- Segurtasun-neurriak: babesteko agindua, neurri judizial zibilak eta/edo penalak eta neurri polizialak.
- AC.II.P.01- Diru-sarrera propioak
- AC.II.01- Lanbidea
- AC.II.02- Ikasketa-maila
- AC.II.03- Etxebizitzaren edukitze-erregimena
- AC.II.04- Tratu txar mota: fisikoa, psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa
- AC.II.05- Tratu txarraren iraupena
- AC.II.06- Ezgaitasuna
- AC.II.07- Mendekotasunak
- AC.II.08- Ez du hizkuntza ezagutzen
- AC.II.09- Administrazio-egoera

Honako aldagai hauek jarraitutasun handiagoko esku-hartzeak egiten dituzten baliabide edo programentzako informazioa dira, horiek betetzeko gaitasun-maila baloratzeko.

AC.I.II.01- ERASOTZAILEAREKIN BIZITZEA

Definizioa:

Esku-hartzearen xede den pertsona etxebizitza berean bizi da erasotzailearekin.

Kategoriak:

AC. I.II.01- Erasotzailearekin bizitzea:

- Bai
- Ez

AC.I.II.02- SALAKETA EGOTEA

Definizioa

Hau hartzen da **salaketatzat**: egintza bat, dagokien agintariei jakinarazteko pairatutako indarkeria-egoerarekin zerikusia duen delitu-ekintzaren bat egin dutela eta dena delako ekintza hori esku-hartzea/arreta eragin duen erasotzaileak egindakoa dela (edo indarkeria hori biktimarekin harremanetan jartzean hauteman du profesionalak).

Kategoriak:

AC.I.II.02. Salaketa egotea:

- Bai
- Ez

AC.I.II.02.01- **Egungo salaketa**: esku-hartzea/arreta eragin duen erasotzaileak eginiko ekintzak salatu ditu emakumeak, eta prozesu judiziala zabalik dago.

- Bai
- Ez

AC.I.II.02.02- **Aurreko salaketa**: esku-hartzea/arreta eragin duen erasotzaileak eginiko ekintzak aurretik salatu ditu emakumeak, eta prozesu judiziala amaiturik dago.

- Bai
- Ez

AC.I.II.03- SEGURTASUN-NEURRIAK: BABESTEKO AGINDUA, NEURRI JUDIZIAL ZIBILAK ETA/EDO PENALAK ETA NEURRI POLIZIALAK.

Definizioa

Babesteko agindua ezazpen judizial bat da³, eta kautelazko neurri zibilak eta/edo penalak hartuz biktima babesteko agintzen du, baldin eta etxeko indarkeriako delituak edo faltak egin dituztela uste izateko zantzu oinarridunak badaude eta biktimak arrisku-egoera objektiboa badu. Horrez gain, beharrezko diren gizarte-laguntza eta -babeseko neurriak ere abiarazten ditu. Beraz, ezazpen judizial bakarraren bidez, erasotzailearen mugimendu-askatasuna murrizteko neurriak hartzen dira, betiere biktimarengana hurreratu ez dadin; erasotako pertsonari eta haren familiari segurtasuna, egonkortasuna eta babes juridikoa emateko beste neurri batzuk ere hartzen dira, eta, hartarako, ez da itxaron beharko ezkontza-prozesu zibila.

Aginduak etxeko indarkeriaren biktimen «babes osoko estatutua» ezartzen du, ezazpen horri esker Legeak estatutu horri emandako eskubide batzuk eskuratu ahal izango baititu biktimak. eNurri zibilak eta penalak daude, besteak beste, estatutu horretan.

Kategoriak:

AC.I.II.03.01- Babesteko agindua:

- Eskatuta
 - Emanda
 - Behin-behineko espetxealdia
 - Biktimarengana hurbiltzeko debekua
 - Seme-alabengana hurbiltzeko debekua
 - Biktimarekin komunikatzeko debekua
 - Seme-alabekin komunikatzeko debekua
 - Familiaren etxebizitza erabiltzea eta gozatzea
 - Seme-alaben zaintza
 - Seme-alabak bisitatzeko araubidea
 - Mantenu-pentsioa
 - Bestelakoak. Zehaztu: _____
 - Ukatuta
- Eskatu gabe

AC.I.II.03.02- Epai penala:

- Bai
 - Espetxeratzea
 - Biktimarengana hurbiltzeko debekua
 - Seme-alabengana hurbiltzeko debekua
 - Komunikatzeko debekua
 - Bestelakoak. Zehaztu: _____
- Absoluzioa
- Ez

AC.I.II.03.03- Epai zibila:

- Bai
 - Familiaren etxebizitza erabiltzea eta gozatzea
 - Seme-alaben zaintza
 - Mantenu-pentsioa
 - Bestelakoak. Zehaztu: _____
- Ez

AC.I.II.03.04- Neurri polizialak:

- Bai
- Ez

³ [Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duen 27/2003 Legea, uztailaren 31koa.](#)

AC.II.P.01- DIRU-SARRERA PROPIOAK

Definizioa:

Pertsonak berez baliabide ekonomikoak baditu.

Kategoriak:

AC.II.P.01- Diru-sarrera propioak edukitzea.

- Bai
- Ez

AC.II.01- LANBIDEA

Definizioa:

Pertsonen lanarekin zer erlazio duten. Lanaren nozioaren barruan ordainsaria edo onura lortuta egiten den jarduera oro sartzen da, hau da, enplegatzailea-enplegatua erlazio baten barruan ordaindutako lan oro edo lan independente oro. Ordaindu gabeko familia-lana ere izan daiteke (familia-laguntzak).

Kategoriak:

AC.II.01- Lan-egoera:

- Landuna (norbere kontura, autonomia, soldatapeko langileak dituen enpresa, kooperatibako bazkidea, besteren kontura kontratuarekin/kontraturik gabe, babestutako lana).
- Langabea (lehen enplegua bilatzen ari da edo lehenago lan egin du).
Ez-aktiboa (etxeko lanak, ikasketak egiten, erretiroa hartuta, pentsioduna, errentadunak eta ezgaituak).
- Bestelakoak _____

AC.II.02- IKASKETA-MAILA

Definizioa

Pertsona batek bukatutako ikasketen maila handiena da titulazio-maila.

Kategoriak:

Adierazle honetan ageri den sailkapena EUSTATEk erabiltzen dituen ikasketa-mailetan oinarritzen da. Sailkapen horrekin dauden alde nagusiak hauek dira: analfabeto funtzionalak sartzeari, eta eskolaurreko eta Lehen Hezkuntzako ikasketak bi taldetan jasotzea. Bigarren Hezkuntza eta Goi Mailako ikasketetan ere erantsi da ñabarduraren bat.

Jatorrian ikasketak egin dituzten atzerritarrei dagokienez, maila aintzat hartuko da hori homologatuta dagoen alde batera utzita, pertsona horren ulermena, ezagutzak zein kultura baloratzea baita asmoa, ez titulu jakin bat duen egiaztatzea.

AC.II.02- Bukatutako ikasketen maila.

Analfabetoa edo analfabeto funtzionala

Pertsona bat analfabetoztat hartzen da ezein hizkuntzatan irakurtzen edo idazten ez badaki. Hori egiten dakien arren zailtasuna badu eguneroko bizitzako jarduerak gauzatzeko, bada, analfabeto funtzionaltzat hartzen da.

- **Ikasketarik ez**
Badaki irakurtzen eta idazten, baina ez du ikasketarik egin.
- **Eskolaurrea**
Ama-eskola, haurtzaindegia, haur-eskola eta antzekoak.
- **Lehen mailako ikasketak**
OHO, haur-hezkuntza eta lehen mailako irakaskuntza, besteak beste.
- **Lanbide-arlokoak**
Lanbide-heziketako ikasketak, lanbide-moduluak, heziketa-zikloak.
- **Bigarren mailakoak**
Oinarrizko batxilergoko ikasketak eta baliokideak, goi-mailako batxilergoa, BBB edo DBH, unibertsitatean sartzeko ikasketak eta antzekoak.
- **Maila ertain eta goi-mailakoak**
Ingeniaritza teknikoa eta perituak, irakasle-ikasketak, erizaintza eta maila bereko bestelako ikasketak. Goi-mailako edozein ikasketaren 3 kurtso gaindituta edukitzea barne.
- **Goi-mailakoak**
Lizentziatura, goi-mailako ingeniaritza eta antzeko ikasketak, doktoregoak eta espezializazioa. Gaur egungo graduak barne.

AC.II.03- ETXEBIZITZAREN EDUKITZE-ERREGIMENA

Definizioa:

Pertsonen etxebizitza okupatzeko eginiko akordioari dagokio etxebizitza-edukitza. Hori horrela, etxebizitza-edukitzari buruzko errola-informazioari dagokionez, jabetzan okupatutako etxebizitzak, alokatuak, lagatakoak edo bestelako edukitza dutenak bereizten dira.

Kategoriak:

AC.II.03- Etxebizitzaren edukitze-erregimena

- **Jabetzako etxebizitza:**
Etxebizitza bat kaudimenarekin erosi zuen pertsona edo bizikidetzataldea. Horrek ez du esan nahi gaur egun horri eutsi ahal izateko kaudimena ere edukitzea.
- **Alokairuko etxebizitza:**
Etxebizitza bat alokatu zuen pertsona edo bizikidetzataldea. Egoera hori ez da ezinbestean izan erosteko kaudimenik ez edukitzeagatik. Halere, azpierrentamendua eta baterako errentamendua, oro har, arazo ekonomikoen ondorio izaten dira.
- **Ostatu batean edo apopilo-etxe batean.**
Hainbat pertsonak ostatu hartzen duten etxeak dira, ez legez ezarritako ostatuak.
- **Ostatuetan.**
- **Egoera ezegonkorra.** Bizi diren etxebizitzan pertsonen ez dute egoera horri buruzko segurtasunik, hauengatik: erabilerarako lagatakoa izateagatik, legezgabe gabeko alokairua izateagatik, lanean ari den bizikidetzataldearekin bizi den etxe langilea izateagatik, ostaturik gabe edo eskklusio-egoeran daudenentzako ostatuan egoteagatik, alokatutako gela batean bizi den bizikidetzataldearekin izateagatik...

AC.II.04- TRATU TXAR MOTA: FISIKOA, PSIKOLOGIKOA, SEXUALA ETA EKONOMIKOA

Definizioa

Ohikoena da harreman batean tratu txarren mota bat baino gehiago agertzea. Jarraian definitu ditugu horiek. Aldagai bat sartu beharko litzateke haurdun badaude edo egon badira, haurdunaldian tratu txarrik egon den zehazteko (haurdun behin baino gehiagotan egonez gero, haietako batean gutxienez pairatu badute).

Tratu txar fisikoa: Ezustekoak ez diren eta biktimaren osotasun fisikoari arriskua edo kaltea dakarkioten ekintzak. Hainbat ekintza aintzat hartzen dira: bultzatzea, jotzea, objektuak jaurtitzea... baita lesio larrien ondorioz emakumeen heriotza eragiten dutenak edo eragin dezaketenak, mediku-tratamendua edo kirurgia behar duten lesioak, eta ospitaleratzetik eragiten ez dutenak ere. Tratu txar horien artean sartzen da, halaber, erasoek eragindako gaixotasun edo lesioak sendatzeko laguntzarik ez ematea. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-mota ezagunena da, indarkeria fisikoaren ondorioa sarritan emakumeen gorputzean ikusten baita, eta, horregatik, begiratu batean atzematea errazagoa da, beste tratu txar batzuetan baino; eta ikusteko erraztasun horrek bideratzen du berehalako eta egiaztatzeko moduko epaile-froga izatea.

Tratu txar psikologikoa edo emozionala: Ezustekoak ez diren eta biktimaren osotasun psikikoa arriskuan jartzen duten edo kalte egiten dioten ekintzak: mehatxuak, irainak, mespretxua, afektiboki baztertzea, interakzio-ekimenak blokeatzea, bakartzea, inkomunikazioa, etab.

Tratu txar sexuala: Biktimaren baimenik gabe egindako sexu-izaerako jokabideak.

Tratu txar ekonomikoa: Informazioa edo dirua nahiz bestelako ondasun ekonomikoak eskuratzen ez uztea. Honakoak hartzen ditu barnean: xantaia ekonomikoa, diru-sarrerak erabat kontrolatzea, elkarren arteko ondasunetan emakumeei esku hartzen galarazi edo mugak jartzea, emakumeari lan egiten ez uztea edo janari-pentsioa ez ordaintzea.

Kategoriak:

AC.II.04- Tratu txar mota

- Tratu txar fisikoa
- Tratu txar psikologikoa
- Tratu txar sexuala
- Tratu txar ekonomikoa

AC.II.04.01- Tratu txarra haurdunaldian

- Bai
- Ez

AC.II.05- TRATU TXARRAREN IRAUPENA

Definizioa: Artatutako emakumeak egoera noiztik gertatu den esatea.

Kategoriak:

AC.II.05- Tratu txarraren iraupena

- Urtebete baino gutxiago
- 1-4 urte
- 5-10 urte
- 10 urte baino gehiago

AC.II.06- EZGAITASUNA

Definizioa

OMEk emandako definizioaren arabera, ezgaitasuna zera da: «gizaki batentzat normaltzat jotzen den eran edo esparruan jarduera bat egiteko gaitasunean dagoen murrizketa edo gabezia oro (urritasun baten ondorioz)». Aldi baterakoa edo iraunkorra izan daiteke, itzulgarria edo itzulezina.

Bi kategorizazio-aukera daude: lehenak ziurtatuta ez dauden ezgaitasun-egoerak hartzen ditu barnean, eta bigarrena ziurtatuta dauden egoerei bakarrik dagokie. Segimendu jarraituko II. taldeari bi proposamen horiek egokiak al diren baloratzea proposatzen zaio.

Kategoriak:

AC.II.06. 01- Ezgaitasun-egoera

Ezgaitasunik gabe.

Ziurtatutako ezgaitasuna:

- Fisikoa
- Sentsoriala
- Psikikoa
- Intelektual edo mentala
- Ziurtatu gabeko ezgaitasuna:
 - Fisikoa
 - Sentsoriala
 - Psikikoa
 - Intelektual edo mentala

AC.II.06. 01- ZIURTATUTAKO ezgaitasunaren egoera

Ez du ezgaitasunik.

Ez du gaitasun murriztu larririk (% 32 arte).

Zailtasunak ditu, ezgaitasunaren ondoriozkoak (% 33tik % 64ra arte)

- Fisikoa
- Sentsoriala
- Psikikoa
- Intelektual edo mentala

Zailtasun larriak ditu, ezgaitasunaren ondoriozkoak (% 65etik % 74 arte eta % 75etik % 100era arte)

- Fisikoa
- Sentsoriala
- Psikikoa
- Intelektual edo mentala

AC.II.07- MENDEKOTASUNAK

Definizioa

Mendekotasun hitza erabiltzen da substantzia, fenomeno edo egoera motaren batekiko mendekotasuna duen jokabidea adierazteko, baldin eta gehiegizkoa eta kaltegarria bada dena delako pertsonaren osasun fisiko zein mentalerako.

Kategoriak:

AC.II.07- Mendekotasunak

- Ez du mendekotasunik. Drogak kontsumitzeak –baldin eta drogak kontsumitzen baditu– ez dio kalterik eta ondoezik eragiten.

- Bai

AC.II.07.01.- Mendekotasun mota:

- Droga-mendekotasuna
- Bestelako mendekotasunak: ludopatia edo bestelako jokabide mendekotasun-sortzaileak

C.II.08- EZ DU HIZKUNTZA EZAGUTZEN

Definizioa

EAEko bi hizkuntza ofizialetakoren baten ezagutza-maila; gutxienez bi hizkuntzetako bat behar bezala ezagutzen duen jakitea da xedea.

Baloratzeko orduan erantzun-aukera positiboena hartuko da kontuan. Esaterako, pertsona batek gaztelaniaz badaki baina ez euskaraz, gaztelaniaren ezagutza-maila hartuko da kontuan.

Kategoriak:

AC.II.08- EAEko hizkuntza ofizialen bat jakitea.

- Badaki.** Mintzatu, ulertu, irakurri eta idazten du.
- Gutxi edo desegokiro daki.** Zenbait oztopo ditu. Adibidez, baliteke ulertzea baina ez mintzatzea, edo irakurtzea baina ez idaztea.
- Ez daki.**

AC.II.09- ADMINISTRAZIO-EGOERA

Definizioa

Emakume atzerritarren administrazio-egoera bizileku- eta lan-baimenari dagokionez.

Kategoriak:

AC.II.09- Administrazio-egoera

AC.II.09.01- Atzerritarren bizileku-baimena:

Bizileku-baimena badu.

- Ez:
 - Baimen-eskaera izapidetzen.
 - Ez du bizileku-baimenik.
 - Ez du izapidetu.
 - Ukatuta.

AC.II.09.02- Atzerritarren lan-baimena:

Lan-baimena badu.

- Ez:
 - Baimen-eskaera izapidetzen.
 - Ez du lan-baimenik.
 - Ez du izapidetu.
 - Ukatuta.